

*Nos visitará un sol
que nace de lo alto...*



*Propuestas para
el Adviento*



La Casa de la Biblia

50
eva
1956-2006

Abendu aldiko 1.ºgo domekea

Egon zaitetze zoli (Mk 13, 33-37)



GAURKO BERBEA

Isaias 63,16-17; 64,1.3-8

Sal 79

1 Korintoarrei 1, 3-9

Markos 13, 33-37

Abendu aldiko lehenengo domekako irakurgaiek Jaunaren etorrerea jarten deuskue begibistan. «Etorriko bazina», «zain gagoz», «zatoz», dira nahi hori adierazoten daben esamoldeetako batzuk. Ebanjelioak gure lozorroetatik esnatzen gaitu eta, aldi berean, munduan dogun eginkizuna gogoratzen deusku.

IRAKURRI ETA ULERTU

Abendu aldia, Gabonetan gertatzen dan Jesusen jaiotza eta bere behin-betiko etorrerea prestatzeko aldia da. Prestaketarako testuinguru honetan, gaurko pasarteak aholkua dakar sasoi guztietako fededun guztientzat.

Mk 13, 33-37 pasarte hots egin. Testuaren mezua geure egingo dogu:

- Pasarte hau, Markosen ebanjelioko «diskurtso apokaliptikoaren» barruan dago. Itxura batean ebanjelariak bere begiak historiaren azkenean jarten baditu ere, I. mendearen bigarren zatian bizi diran kristinatu batzuei hitz egiten deutse. Gogoratzen deutsen Jesusen mezua, errebelazinoa (horixe adierazoten dau «apokalipsia» hitzak), aholku erara agertzen da irakurri barri dogun pasartearen hasieran, erdialdean eta azkenean. *Ze aholku emoten deutse Jesusek bere ikasleei?*

- Zoli egoteko aholkua konparaketa txiki baten bidez (Mk 13, 34), egiten dau eta hortik ondorioa ataraten da (Mk 13, 35-36). *Ze antz dabe atezainaren egoereak eta Jaunaren itzulerea itxaroten dagozan ikasleen egoereak? Ze jarrera izan behar dau ikasleak? Zergatik?*
- Esna eta zoli irauteko irakaspena, itxaropenerako, fedea suspertzeko, ebanjelio-za zabaltzeko eta nork bere bizitza konprometitzeko deia da Markosen alkartea-arentzat. Pasarteko azken aholkuak (Mk 13, 37), jasotzaile jakin batzuei zuzendutako berbak Kristoren ikasle guztiei zuzentzen deutsez. Hausnartu dagigun gure bizi-tzarako dabezan inplikazioez.

HAUSNARTU ETA GAURKOTU

Kristinauak urtero ospatzen dau Jaunaren lehenengo etorrerea eta bere bizitza osoa etengabeko itxarote lez itxuratu behar daua gogoratzen dau. Horregaitik, gaur ere, Jesusen berben oihartzuna gogor entzuten da gure artean.

Zure aurpegiaren bila: Fedea

Jesukristo etorri dala, badatorrela eta etorriko dala dinogu kristinauok. *Zenbateraino jabetzen naz errealitate horretaz? Ziurtasun horrekin sustatzen dugu gure fedea?*

Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera: Karitatea

Ebanjelioaren gaurko txatala kontuan hartuta, *zerk aldatu behar dau nire bizitzan eta gure bizitzan, Abendu aldia egoki bizitzeko? Nondik hasi gaitkez?*

Etor bedi zure Erreina: Itxaropena

«Iratzari egon, ba, ugazaba noiz etorriko dan ez dakizue-ta». *Zelan itxaroten dot Jaunaren etorrerea? Larrituta? Ezer egin barik? Zelan adierazoten da gure bizitzan itxaropen hau?*

OTOITZ EGIN ETA OSPATU

- Jesus badator, esna, munduaren aldaketan konprometituta eta otoitz eginez itxarongo deusagu.
- Abendu aldi honetan, jarri dagigun Biblia zabalik gure batzar otoizlariaren erdian. Bibliaren inguruan, domeka bakoitzari dagokion ebanjelioaren inguruko sinboloak jarriko ditugu. Lehenengo domeka honetan, zabalik dagoen Bibliaren ondoan, iratzargailu bat ipini daikegu. Ebanjelioak gure lozorrotatik esnatzen gaitu gaur, Jesusen etorrerea gogoratzen deusku eta Erreinuaren eraikuntzan konprometitzen gaitu.
- Gure otoitza taldean adierazoko dogu.

Jaunaren hiru etorrera ezagutzen doguz... Lehenengoan, Kristo gure berrerospena izan zan; azkenean, gure bizi lez adierazoko da; bitarteko etorrera honetan, gure atseden eta kontsolamendu da.

San Bernardo

Abendu aldiko

2. domekea

Atondu egizue Jaunaren bidea (Mk1, 1-8)

GAURKO BERBEA

Isaias 40, 1-5. 9-11

Sal 84

2 Pedro 3, 8-14

Markos 1, 1-8



Bigarren domeka honetan ere, prestaketa lez biziko dogu Abendu aldia. Kreazinoak zein Eliza osoak Jaunaren etorrerarako prestatzen dihardu. Testuinguru honetan, mundu osoari Jaungoikoa badatorrela oihukatzen deitsoen gizon eta emakumeak gara, Joanen antzera.

IRAKURRI ETA ULERTU

Ebanjelioko gaurko txatalak Jesusen aurkezpen laburra egiten dau eta Joan Bateatzailea Mesiasen aitzindari lez aurkezten dau.

Mk 1, 1-8 pasartea hots egin. Testuaren mezua geure egingo dogu:

- Gaurko pasarteko lehenengo txatalean, gero ebanjelariaren lan guztian guztiz garrantzitsuak izango diran Jesusi buruzko baiztapen bi jasotzen dira. *zeintzuk dira baiztapen horreek? Zer dinoe Jesusi buruz?*
- Jesus Mesias da, Jaungoikoaren Semea (Mk 1, 1). Baiztapen biotan adierazoten da bere misinoa eta bere benetako nortasuna, nahiz eta gero ebanjelio osoan zehar ere hori agertzeraz emoten joan. Nortasun horri buruz hitz egiten dau Joan Bateatzailearen predikua (Mk 1, 2-8). *Zein da Joanen misinoa? Zertan datza, funtsean bere predikua?*

- Jaunari bidea atontzea da Joanen misinoa. Bere predikuan, bateo garbitzailearen bidez, bihozbarritzeko dei egiten deusku. Bere iragarpenak zelanbaiteko premina, presa iragarten dau eta ez dau inor axolagabe izten. Beste zerbait dago. Irakurri berriz ere gaurko pasartearen azken txatalak (Mk 1, 7-8). *Zer dino Joanek Jesusi buruz? Zer dino Joanek bere buruaz?*
- IZko profeten arabera, Espirituaren indar eta dohaina itxaroten dogun Mesiaren nor-tasunaren ezaugarriak dira. Joanek gogoratzen deusku. Jakina, aitzindariak Jesusengana apuntatzen dau, gezi bat izango balitz lez. Bere iragarpen eta testigantzak datorren Jaunari harrerea egiteko nahia bizten dabe gudan.

HAUSNARTU ETA GAURKOTU

Joan Bateatzailea ez da iraganeko pertsonaia bakarrik. Abendu aldi honetan, gutako bakoitzari zuzentzen jako, Jesus seinalatzeko. Bere irudiak gure bizitza eta itxarotea ere zalantzan jarten ditu.

Zure aurpegiaren bila: Fedea

Joan Bateatzailea, Mesiasen etorrerea iragarri eban abotsa izan zan. Irakurri dogun ebanjelioko pasartearen arabera, laztasuna, apaltasuna... ziran bere ezaugarriak. *Bateatzailearen ze jarrera geureganatu daikegu Abendu aldi honetan?*

Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera: Karitatea

"Juan Bateatzailea agertu zan basamortuan, pekatuen parkamenerako damu batea iragarten". *Ze alderditan kontuan hartu beharko geunke benetan Joanen deia eta pentsamoldez eta jarrerez aldatu?*

Etor bedi zure Erreinua: Itxaropena

Uraz egiten zan eta pekatuak parkatzen ebazan bateoaren orde, gizateria bizi barri eta behin-betikora zabaltzen dauan Espiritu Santuaren batea egiten da. *Itxaropenarako ze arrazoi emoten deuskue testuaren alderdi honek eta beste batzuek?*

OTOITZ EGIN ETA OSPATU

- Hitzak, irakurri eta hausnartu ondoren, otoitz konprometitu eta eskerronekoa sortuazoten dau gure bihotzean: Jaunak geuri begiratu deusku, gure munduari bere etengabeko etorrerea iragarri deiogun.
- Gure Abendu aldiko otoitzean leku nabarmena daualarik, zabalik daukagun Bibliaren inguruan beste sinbolo batzuk jarriko doguz. Aurreko domekan iratzargailua ipini genduan eta gaur megafonoa edo mikrofonoa jarriko dogu. Joan Bateatzailearen antzera, oihukatzen dauan abotsa izateko prest gagoz, danak prestatu daitezcan etorri datorren Jaunari harrerea egiteko.
- Gure otoitza taldean adierazoko dogu.

Fede zuzena eta egintza onak hots egiten dituanak, ez ete deutso, ba, Jaunari bidea atontzen, entzuleen bihotzera etorri daiten, graziaren indarrak bihotza zulatuz, egiaren argiaz ilustratuz, Jaungoikoarengana eroan behar gaituen bideak zuzenduz, bihotzean pentsamendu santuak sortu daitezcan?

Abendu aldiko

3. domekea

Argiaren lekuko (Jn 1, 6-8, 19-28)

GAURKO BERBEA

Isaias 61, 1-2. 10-11

Samoa: Lk 1, 46-50. 53-54

1 Tesalonikakoei 5, 16-24

Joan 1, 6-8. 19-28



San Joan ebanjelariaren bitartez datorkigu gaur Joan Bateatzailearen testigantza. Testigantza horri, salmoa eta Tesalonikakoei idatzitako lehenengo gutuna gehitzen jakoz eta Abendu aldia poztasun beteaz bizitzeko deia egiten jaku guztietan.

IRAKURRI ETA ULERTU

Joan dan astean, profeta zorrotz eta bihozbarritzearen predikari lez aurkezu euskun san Markos ebanjelariak Joan Bateatzailea. Laugarren ebanjelioak Jesusen testigu izatea nabarmentzen dau.

Jn 1, 6-8. 19-28 pasartea hots egin: testuaren mezua geure egingo dogu:

- Irakurri dogun testuak laugarren ebanjeliotik datozen pasarte bi jasotzen ditu. Lehenengo hitzaurre poetikoari (Jn 1, 6-8) dagokio eta bigarren hitzaurre narratiboari (Jn 1, 19-28). Bietan agertzen da Joan Bateatzailea, Jesusen testigantza emoten dauan lehenengo testigua.
- Lehenengo pasartean, ebanjelariak berak aurkezten dau Bateatzailea testigu lez. *Zer esaten da Joani buruz txatal honeetan? Zein egiteko dau Joaneke Jesusi dagokionez?*
- Bigarren pasartean, Joaneke berak aurkezten eta azaltzen dau bere testigantzaren edukina. Istaalgo agintari erlijiosoek bialdutako taldeak emoten deutso horretarako

aukerea. *Ze pertsonaiagaz identifikatu gura dabe Bateatzailea? Zelan erantzuten deutse Joanek hareen galderei? Zer esaten dau horregaz?*

- Azkenik, Bateatzaileak bera nor dan esaten dau eta argi eta garbi erakusten dau zer dan. *Zelan egiten dau hori? Zeinekin dator bat?*
- Bateatzaileak ez dau Jesusen lekua hartu gura, alderantziz, bere eginbeharra atzetik datorrenaren arabera izango da. Aditu askoren ustez, honela hitz eginez, ebanjelariak gauzak bere lekuan jarri gura ditu eta Bateatzailearen ikasleekazko gorabeherak konpondu, honeek euren maisua Jesusen gaintetik egoala inoelako. Abendu aldian hain garrantzitsua dan aitzindariaren irudia lagungarri izan daiteke guretzat, Jauna gure artean egoteko nahian sakonduz bizi dagigun itxaronaldi hau.

HAUSNARTU ETA GAURKOTU

Joan Bateatzaileak Jesusen testigantza emote lez aurkezten dau bere burua, bere mugak apaltasunez autortuz: bera ez da argia, ez da Mesias, ez da Hitzia. Deiar egiten dauan "abotsa" baino ez da. Nor garan eta Jesus nor dan ikusten lagundu deiguke Abendu aldi honetan.

Zure aurpegiaren bila: Fedea

«Zuon artean dago zuek ezagutzen ez dozuen norbait.» *Zelan aprobetxatu behar-ko geunke Abendu aldi hau Jesus hobeto ezagutzeko eta Beragazko hartuemon pertsonal eta estuagoa izateko?*

Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera: Karitatea

Joan, «argiaren testigantza emoteko» etorri zan. *Zer esan gura dau niretzat «argiaren testigu» izateak? Iluntasunez betetako ze egoera argitu gurako neuke, eta zelan egingo neuke? Talde lez, hartu daikegu konpromisoren bat horren haritik?*

Etor bedi zure Erreinua: Ixaropena

Abendu aldia itxaropenezko eta poztasunezko aldia da: *irakurri dogun pasartetik, zerk laguntzen deusku gehien zentzu horretan?*

OTOITZ EGIN ETA OSPATU

- Abendu aldia otoitz giroan bizi behar dogu, itxaroten doguna apaltasunez eskatu eta dohain lez jaso behar dogulako.
- Une hau girotzeko, zabalik dagoan Bibliaren inguruan, eta beste domeketako sinboloekin batera, kandela bat biztuta jarriko dogu. Kandela txiki horren bitartez zera autortuko dogu: Joan Bateatzaileak lez, Jesusegaz datorkigun argia geure egin gura dogula.
- Gure otoitza taldean adierazoko dogu.

Joanek ez deutse gizon eta emakume guztiei argi emoten. Kristok bai. Joanek lanpara bat dala autortzen dau, harrokeriaren haizeak itzali ez dagian. Lanpara biztu eta itzali egin daiteke. Jaungoikoaren Berbea ezin da amatatu, baina lanpara bai.

Abendu aldiko

4. domekea

Jaioko danari Gorengoaren Seme esango deutsoe
(Lk 1, 26-38)

GAURKO BERBEA

2 Samuel 7, 1-5.8-12. 14. 16

Sal 88

Erromatarrei 16, 25-27

Lukas 1, 26-38



Jainkoak ez ditu ahazten bere herriaren alde hartutako konpromisoak. Dabidekin egin eban agintzariak Mariaren prestasunean aurkitzen dau beteteko bidea. Hauxe da, Erromatarrei idatzitako gutunaren arabera, herri guztiei barri on lez iragarten jaken misterioa.

IRAKURRI ETA ULERTU

Maria da Abendu aldiko pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa. Prestasuna erakutsi eban, entzuten jakin eban eta bere bizitza Jaungoikoaren borondatearen arabera zuzendu eban.

Lk 1, 26-38 pasartea hots egin: testuaren mezua geure egingo dogu

- Pasarte hau «haurtzaroko ebanjelioa» (Lk 1-2) deitutako testuinguru narratiboan kokatzen da. Kapitulu honeek eratzeko, Lukasek bere garaian ohikoak ziran teknika eta jardunbide literarioak erabili ebazan. Horreen bitartez, ez eban Jesusen txikitako bizi-moduaren laburpenik idatzi nahi izan, argi baten antzera, bere haurtzarora ere jaurtitzen dan Berbiztuaganako fedea islatu baino. Gauzak horrela aurkeztuz, Lukasek haurraren nortasuna eta bere misinoa zein izango dan argitzen dau. *Egingo zenduke txatal honeetan Jesusi jarten jakozan tituluen zerrenda? Zer esaten da bere misinoaz?*
- Beste alde batetik, ebanjelariak Espiritu Santuari emoten deutson garrantzia da deigarria. Aztertu eta erantzun: *ze erangin dau Jesusen sorkuntzan eta Jaiotzan?*

- Jesusen jaiotza Jaungoikoaren egintza da eta gertaera horregaz aldi barria hasten da eta orduan gizadia birsortua izango da. Gizateria barri honen eredia Eliza da eta Mendekosten gertatu zan bere sorrera ere Espirituaren frutua da. Jesusen bizitza osoa sustatu eban (Lk 4, 18) eta, euren misinoa aurrera eroan dagien, ikasleak sendotu daitezkean (Eg 1, 8) Espiritu berarena.
- Azkenik, Mariaren erantzunean jarri behar dogu arretea. Aingeruagazko solasaldian, apurka-apurka, zera ulertzen dau: Jaunak aukeratu egin dauala, graziaz, Mesiasen ama izateko eta Jaungoikoak eskatzen deitsonaren aurrean hartu behar dauan jarrereaz ere jabetzen da. *Zeintzuk dira pasarte honetan gehien nabarmentzen diran Mariaren jarrerak? Ikusi, ba, zelan islatzen dauan Lukasek fededun guztiak -baita geuk ere- egiten daben prozesua, Jaungoikoak zer eskatzen deutesen jakiten dabenean.*

HAUSNARTU ETA GAURKOTU

Mariak erakusten deusku zelan prestatu behar dogun geure burua Gabonak ospatzeko. Hitz bere sabelean haragitu aurretik, haragituta egoan bere bihotzean. Bere «baietza» lagungarri izan lekekegu Jauna datorren aldi honetan geure jarrerak aztertutako dagiguzan.

Zure aurpegiaren bila: Fedea

Jaungoikoaren Semea Espirituaren bitartez gizon egitea da kredoan autortzen doguzan misterioetako bat. *Zelan laguntzen deust pasarte honek hori ulertzen?*

Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera: Karitatea

«Egin bedi nigan zeuk dinozunez», errezatzen dogu angelusean. *Zertara konprometitzen nau Mariaren "baietak"? Mariak egin eban lez, izten ete deustot Jaungoikoaren Berbeari nire bizitza aldatzen? Beste zein alderditan begiratu deikeogu Mariari gure kristau konpromisoa Abendu aldi honetan erradikaltasun haundiagoz bizitzeko?*

Etor bedi zure Erreinua: Itxaropena

Amabirjina itxaropen eredu da "ezer ezinezkorik ez dauan" Jaungoikoaz fidatu zalako. *Zelan lagundu deiguke bere erduak bertute honetan sustraituta bizitzen?*

OTOITZ EGIN ETA OSPATU

- Maria, maistra dogu otoitzean ere. Beragaz eta berak lez, bere seme Jesusi harrerea egiteko prestatu gaizala eskatuko deustagu Aitari.
- Une hau girotzeko, Abendu aldi honetarako aukeraturutako sinboloen ondoan, Mariaren ikonoa ipini daikegu. Berak lagundu deiguke geure burua, gure alkarteak eta gure mundua prestatzen, erdi-erdian Jesus jaio daiten.
- Gure otoitza taldean adierazoko dogu.

Horrela gordeten badozu Jaungoikoaren berbea, zalantza barik berak zeu gordeko zaitu. Semea zugana etorriko da Aitagaz batera, dana barri egiten dauana etorriko da. Hain eraginkorra izango da etorrera hau non, gu, lurreko gizakiaren irudi garanok, zeruko gizakiaren irudi ere izango garan.

Gabon jaia

Hitza haragi egin zan (Jn 1, 1-18)

GAURKO BERBEA

Isaias 52, 7-10

Sal 97

Hebrearrei 1, 1-6

Joan 1, 1-18



Aitaren Seme bakarra gutako bat egin da geu ere Jaungoikoaren seme-alaba izan gaitezaz. Belengo Haurraren "bere aintza" ikusteko gauza izan gaitezala eta bere etorrerea onartu dagigula.

IRAKURRI ETA ULERTU

Gabonak gai garrantzitsuak dira kristinauentzat, bertan gizon egindako Jesusen jaiotza gogora ekarten eta agertzeraz ematen dogu. Elizeak san Joanen ebanjelioko pasarte bat proposatzen deusku egun honetarako. Lehenengo kristinauek Jesusengan eben fedea autortzeko erabilten eben.

Jn 1, 1-18 hots egin: testuaren mezua geure egingo dogu.

- Laugarren ebanjelioren hitzaurrea "Jaungoikoaren Berbearen Historia" lez irakurri daiteke. Beste era batera esanda, mundua sortu ebanetik, Jaungoikoak gizakiekin komunikatzeko egin dauan guztiari eta gizakiek dei horri erantzun deusoenari buruz hitz egiten da hemen. Salbamenaren Historiaren gertaerarik gogoangarrienak eza-gutu daikeguz. *Ze lotura ikusten dozue ereserki honetan esaten danaren eta Salbamenaren historiaz ezagutzen dozuaren artean? Zer eskeintzen deusko pasarte honen ikuskereak historia horren ulermenari?*

- Ereserkiaren amaieran, Berbeak izen berezia hartzen dau: Jesukristo. Joanen hitzurreak bere nortasunik sakonena agertzera emoten deuzku bere jainkozko jatorria nabarmenduz eta bere misinoaren garrantzia argituz. *Zer esaten da Jesus-Hitzaren eta Jaungoikoaren arteko lotureari buruz? Zertan datza gizateriaren aldeko bere misinoa?*
- Jaungoikoak Jesukristoren bidez egiten deuskun alkarrizketa eta hartuemonerako eskeintzaz gain, laugarren ebanjelioaren hasieran jasotzen dan ereserkiak grazia eta egiazko proposamen horrek jaso daikezan erantzun mota desbardinak nabarmentzen ditu. *Zelan adierazoten dau Joanen hitzurreak? Ze ondorio dau erantzun horretako bakoitzak gizon eta emakumeen bizitzarako?*

HAUSNARTU ETA GAURKOTU

Geu lez gizakia dan eta, aldi berean, semeen artean nagusia dan Jesusi esker "inork inoiz ikusi ez dauan" Aitaren aurpegia ezagun eta hurkoago egiten jaku. Belengo Haurrengan haragitutako Berbeari begiratu, hausnartu dagigun.

Zure aurpegiaren bila: Fedea

Laugarren ebanjeloko hitzurrea funtsezko testua da kristau bizitzarako. *Zer dakartso nire fede bizitzari bertan Jaungoikoaz eta Jesukristoz esaten danak?*

Zoaz eta egjin zeuk ere gauza bera: Karitatea

Hitza haragi egiten da eta gure artean jarten dau bere denda. *Zer esaten deust haragitutako Hitzaren adibideak nire kristau konpromisoa ulertzerakoan eta zehazterakoan? Nondik hasi gaitkez?*

Etor bedi zure Erreinua: Ixartopena

Berbea nork bere egitea, grazia osoaren agintzaria jasotzea, Jaungoikoaren seme-alaba lez biziteko aukerea izatea da. *Sustapena ete da zuretzat ixaropenean bizitzeko agintzari hau?*

OTOITZ EGIN ETA OSPATU

- Gabonak misterioa dira eta arrazoituz ulertu ordez, bihotzaz ulertu behar doguz. Horregaitik, gaurko bezalako alkarraldi baten ondoren, nahitaezkoa da otoitz egitea
- Gure batzar otoizlariaren erdian Ume Jesusen irudia jarriko dogu, sehaska lez balioko deuskun Biblia irekiaren gainean. Horrela, Berbea haragi egin dala adierazoko dogu.
- Gure otoitza taldean adierazoko dogu.
- Amaitzeko, danok dakigun gabon-kanta abestu daikegu.

Jainko Jauna, miragarriak egin dozuz gizona zeure antzeko eginez, eta miragarriagoak, Kristoren bidez goi mailara goratuz; eiguzu, gizatasunean gugaz bat egin dan zure Semeak bat egin gaizala Beragaz jainkotasunean.

Gaurko eguneko otoitza